KALAXKI
MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA 2019ko uztaila - 196 zenb.

JAI ASKE ETA PAREKI DEEN ALDE

LAGUNARTEA IZAN DA FUTBOLAREN ONENA

Ander Prieto Andonegi

MUTXUR



Festa eta zaborra, uztartutako bikotea

Uztaila eta abuztua, garagar olatua agortze bidean

Liñua (I): harixa egitxeko balixo zoan bedarra

AMNISTIA

Malenetan ere euskal preso eta iheslari politikoak gogoan



DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET

Telefonoak

Osasuna

Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa	943 60 43 00
DYA zentrala	943 46 46 22
Mendaroko ospitala	943 03 28 00
Botikak	
Lasuen-Elezgarai	943 19 50 26
	626 61 13 92
Lon Apraiz	943 60 32 50
	630 05 50 97
Amaia Zalduegi	669 26 22 01
Hiart Burgoa	667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar)	943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar)	943 74 11 77
Yudego (Elgoibar)	943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar)	943 74 12 77
Idoia Lafuente (Eibar)	943 25 44 10

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea	943 60 32 44
Udaltzaingoa	943 60 70 48
	679 16 25 00
Gizarte Ongizatea	943 19 50 81
Anai Arte	943 60 42 47
Zaharren Egoitza	943 60 38 71
Eguneko Zentroa (Deba)	943 19 23 60
Turismo Bulegoa	943 60 33 78
Bake epaitegia	943 60 70 49
Kiroldegia	943 60 31 75
Liburutegia	943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua	943 60 41 91
Ur Partzuergoa	902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak	943 70 07 99
Posta zerbitzua	943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola	943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea	943 60 31 95
Mutrikuko Institutua	943 89 92 24
Udal Euskaltegia	943 60 30 94
Udal Musika Eskola	943 60 37 80
Haurreskola publikoa	943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia	638 67 23 83
ANTON taxia	666 22 19 99
XABI taxia	656 28 90 26
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa Autobusak	902 10 12 10
BizkaiBus	902 22 22 65
EuskoTren	902 54 32 10
Loiuko Aireportua	905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia	943 60 39 87
Bikario etxea	943 60 39 88
Santa Catalina eleiza	943 60 32 00

Arantza Ugarte Lopetegi

PERTSONAK ETA MAKINAK

Efizientzia eta efikazia, gaur egun asko erabiltzen diren bi hitz... Aurrez markatutako helburuak lortzeko bitarteko egokiak neurri egokian erabili eta helburua ongi betetzea da efizientzia. Efikazia, aldiz, ekintza bat egitean esperotako emaitzak lortzea da. Telefonoko faktura jaso dut eta kobratu didaten diru kopuruarekin ez nago ados... Berehalako erreakzioa, telefonoz deituko dut faktura azaltzen diren kontzeptu ezezagunak argitzeko... Telefonoko deiari erantzuna.... "euskaraz komunikatu nahi baduzu: sakatu 1; gaztelaniaz komunikatu nahi baduzu...; matxura baduzu: sakatu 3; zerbitzua berritu nahi baduzu: sakatu 4; zerbitzuarekin arazoak badituzu: sakatu 5; ..... Telefono konpainiak eta beste konpainia eta enpresa askok, efizientziaren izenean, erantzungailu automatikoak jarri dituzte... eta zuk, oso efikaza izan behar duzu, lehenengo entzun aldian, zuzen zein teklari eman behar diozun jakiteko...

Zein tekla sakatu behar dut pentsatzen ari zaren bitartean, makina isildu gabe ari eta ari... eta zuri ahaztu zaizu zertarako deitu duzun ere.... Faktura jaso duzunean, eskatu gabeko zerbitzua kobratu dizutelako sortu zaizun haserrea baretzen ari zaizu... Eta zuk duzun arazoa konpontzeko zenbakirik ez dagoela konturatzen zarenean, ezinak gaina hartzen dizu... Eta akabo! Akabo haserrea, akabo erreklamazioa, akabo dena... Bien bitartean, dena delako konpainiak eskatu gabeko zerbitzua kobratzen jarraitzen du...

Norbera, gero eta apalago, egoerari aurre egiteko ekintza efikazarekin asmatzen ez duelako... Eta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak gero eta efizienteago beren bitartekoekin erabat asmatzen ari direlako... Urtearen amaieran, zenbateko irabaziak izan dituzten... neurri eta maila guztietan erakutsiko dizkigute... milioitan, ehunekotan, grafikoak eginda.... Gardentasunez erakusten dituzten komeni zaizkien kontuak... baina ez dute azaltzen (inefikaz aurpegiarekin) frustazioz beteta zer egin asmatu ezinik gelditu den bezero kopurua. Ez dute inon erregistratu kopuru hori. Ez dago erreklamazio zerbitzuetan ezer aldatu beharrik...

Eta bezerook erakunde publikoetara jotzen dugu, eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko bulegoak sortu dituzte... Hain zuzen ere, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek erreklamazioak egiteko bulegorik eta lekurik ez dutelako aurreikusi; eta efizientziaren izenean, pertsonen ordez makinak jarri dituztelako bezeroarekiko gorabeherak konpontzeko... Konpontzeko????? Bezero berriak lortzeko, badirudi pertsonak efizienteagoak direla... Pertsonak, eguneko edozein ordutan zure telefonora dei egiten dutenak... eta makinak bezala hitz egiten dutenak... eta zerbitzu hori ez zaizula interesatzen esaten diozunean, jenio txarra erakusten dutenak, berak eskuratu behar duten soldatan, zure ezezko erantzunak eragina izango duelako... Hauxe da gaur eguneko filosofia..., zerbait SALTZEKO PERTSONAK jartzen dituzte baina ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEKO MAKINAK. Bada, nik, PERTSONAK NAHI DITUT denerako EZ MAKINAK.

Argitaratzailea **Karenka komunikazio elkartea**
Barrenkale 12, behea - 20830 Mutriku Tel. 635 748 393
e-posta **aldizkaria@kalaputxi.eus** - **kalaputxi2001@gmail.com**
web **http://www.kalaputxi.eus** Bloga **www.kalaputxi.blogspot.com**
Laguntzaileak **Mutrikuko Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**
Kolaboratzaileak **Iñigo Andonegi, Josu Larrañaga.**
Tirada **2.200 ale** Lege Gordailua **SS-787/01** ISSN **1579-4792**
Inprimategia **EUSKALINPRI** Banaketa **Kalaputxi**

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak
Erakunde hauen diru laguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

www.lurraldebus.eus - 900 300 340

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93 lantzadera)

Lekeitio	6:00	9:40	12:40	17:35	19:45	
Mutriku	**6:30**	**10:15**	**13:10**	**18:05**	**20:15**	
Deba	6:50	10:30	13:30	18:25	20:35	
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	---	(*) Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lantzadera)

Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik
Deba	8:40	11:40	15:15	18:40	21:10	
Mutriku	**9:00**	**12:00**	**15:35**	**19:00**	**21:30**	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	**7:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	**21:50**	**22:20**
Deba	7:30	orduro	20:30	21:40	22:20	22:50
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92) ostiral lanegunetan

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05	23:55
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15	00:00
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30	00:15
Deba	6:45	7:45	orduro	21:45	22:20	22:35	00:20
Mutriku	**7:15**	**8:15**	orduro	**22:15**	**22:50**	**23:05**	**00:50**

DB04G ONDARROA-EIBAR (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Mutrikutik	23:05; 23:35; 1:35; 3:35; 5:35

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar					
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar				

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debaraino, DB91 lantzadera)

Mutriku	**8:30**	**10:30**	**12:30**	**14:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**
Deba	9:00	11:00	13:00	15:00	18:00	20:00	22:00
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debaraino, DB91 lantzadera)

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Deba	8:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	21:10
Mutriku	**8:40**	**10:40**	**12:40**	**14:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**

larunbat, igande eta jai-egunak

bide-mozketa dela eta, ordutegiak eguneratuta

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA (Debaraino, DB93

Lekeitio	7:45	12:15	16:45	18:45	
Mutriku	**8:15**	**12:45**	**17:15**	**19:15**	
Deba	8:40	13:10	17:40	19:40	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO (Debatik, DB93 lant

Donostia	10:30	14:30	17:00	(lg) 20:30	(Lr) 21:00
Deba	11:10	15:10	17:40	21:40	21:10
Mutriku	**11:30**	**15:30**	**18:00**	**22:00**	**21:30**
Lekeitio	12:15	16:15	18:45	22:45	22:15

DB04 ONDARROA-MALLABIA (Debaraino, DB92 lantzadera)

Mutriku	(Lr) **7:00**	(lg) **8:00**	orduro	**20:00**	**21:10**	(Lr) **21:50**
Deba	7:30	8:30	orduro	20:30	21:40	22:20
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA (Debatik, DB92 lantzadera)

Mallabia	(Lr) 6:50	(lg) 7:45	orduro	(Lr) 21:45	(lg) 19:45
Eibar	7:00	8:00	orduro	22:00	20:00
Mendaro	7:35	8:35	orduro	22:35	20:35
Deba	7:45	8:45	orduro	22:45	20:45
Mutriku	**7:55**	**8:55**	orduro	**23:15**	**21:15**

DB04G EIBAR-ONDARROA (Debatik, DB92G) Larunbat gauetan

Eibartik		Debatik	1:05; 3:05; 5:05; 6:05

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	Donostiara, Mallabiara eta Soraluzera doazen lantzaderak hartu behar						
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	(Lr) 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(Lr) 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	Donostia, Mallabia eta Soraluzetik datozen lantzaderak hartu behar						

DB06 ONDARROA-SORALUZE (Debatik, DB91 lantzadera)

Mutriku	**9:30**	**11:30**	**13:30**	**17:30**	**19:30**	**21:30**
Deba	(Lr) 10:00	12:00	14:00	18:00	20:00	22:00
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA (Debatik, DB91 lantzadera)

Soraluze	8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Deba	(Lr) 9:10	12:10	13:10	17:10	19:10	21:10
Mutriku	**9:40**	**11:40**	**13:40**	**17:40**	**19:40**	**21:40**

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	lehena A-O	lehena L-I	azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 **Durangotik**	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	6:40	20:40
A3915 **Durangotik**	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 **Ermuatik**	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 **Durangotik**	7:40	21:40

jai egunak

A3916 **Ermuatik**	8:10	22:10
A3915 **Durangotik**	8:40	21:40

garraioagarraioagarraioagarraioagarraioa

UDAL BERRIA MARTXAN DA

Berriz ere herritarren aurrera agertzeko aukera dut, non eta duela lau urte agurtzeko eta oraintsu neure burua berriz aurkezteko erabili nuen toki berean, Kalaputxiko orrietan.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet mutrikuarren alkate izateko hautatu ninduten mutrikuar guztiei, eta, urruti izan zela badirudi ere, orain dela oraindik bi hilabete eskas agindu genituenak egiten hasi garela adierazi nahi dizuegu. Bidea egiten hasi gara, bide luze bateko lehen pausuak ematen. Lau urte eta gehiago ere beharko dira gure herrian denok ditugun proiektuak aurrera ateratzeko, eta gu bide horretan lan egitera goaz, ezer ez delako amaituko lau urte barru.

Hauteskunde kanpainan esan genuen moduan, herriarentzat udalaren kudeaketa konpartitua mesedegarria izango delakoan gaude, eta horregatik egin diegu gonbitea udaleko beste taldeei gurekin batera udal kudeaketan parte hartzera. Gonbite horri Berdeak+Independenteak taldeak baietza eman zion eta, hortaz, modu konpartituan landuko dira aurrerantzean Ekologia batzordeko gaiak.

Udalbatzarekin eta Alkatearekin batera udaleko erabakiak hartzeko den hirugarren organoan ere Udaleko hiru alderdiok izango dugu presentzia eta hitza hartu beharko diren erabakietan.

Aurrera begira, erronkatzat hartuko dugu denon proposamenek eta ekarpenek tokia hartzea Mutrikuren etorkizunean eragina izango duen plangintzan eta, lau urtero batzuk sartu eta beste batzuk irten, herri-proiektuan mugarri sendoak ezartzeko. Berdin eta ezberdin pentsatzen dugunon artean eraiki beharko dugulako herria, elkarrenganako konpromisoarekin.

Herritar denok jakin dezagun, jarraiko batzordeen bitartez antolatu dugu hurrengo lau urteetarako udal-funtzionamendua. Batzordeekin batera, batzordeen ardura izango duten zinegotzien berri eman nahi dizuegu, edozein proposamen edota iradokizun jasotzeko prestutasuna agertuta.

UDAL BATZORDEAK:

EKOLOGIA BATZORDEA:
Iñigo Agirre eta Ruben Andonegi.

EUSKARA, HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA:
Izaskun Osinalde eta Joseba Palenzuela

GARAPEN ETA TURISMO BATZORDEA:
Aitor Itza eta Garoa Arizmendi.

GAZTERIA BATZORDEA:
Haizea Egaña eta Ainhize Azpiazu.

GOBERNAZIO BATZORDEA:
Garoa Arizmendi eta Ruben Andonegi.

HIRIGINTZA BATZORDEA:
Joseba Palenzuela eta Ruben Andonegi

JENDARTEA ETA FEMINISMO BATZORDEA:
Ainhize Azpiazu eta Haizea Egaña

KIROL BATZORDEA:
Aitor Itza eta Izaskun Osinalde

OGASUN BATZORDEA:
Joseba Palenzuela eta Garoa Arizmendi

Batzorde guztietako informazioa herritarrei eskura jartzeko eta gaiak jorratzean herritarrekin parte hartzeko bideak lantzeko konpromisoa ere hartua dugu, eta horrela jokatu nahi dugu aurrerantzean.

Hasi gara, ba, udalaren ibilaldi berrian. Aurtengoan, atzetik datozen proiektuei bide emango diegu, eta, uda ostean, datozen urteetarakoak prestatzen hasiko gara. Eta horretarako, lagunok, zuen laguntza beharko dugu, herritarren nahiek eta beharrek erakutsiko digutelako hartuko dugun bidearen iparra.

Joseba Palenzuela, Alkatea

Kalaputxi aldizkariko lan-taldeak Malen-jaiak lagunarteko giro ederrean igaro dezazuen opa dizue irakurle guztioi!

KALAPUTXI

FESTA ETA ZABORRA


uztartutako bikotea

Adinean aurrera egin beharra dago festak zikinkeriarik gabe ezagutu dutenak aurkitzeko. Ohikoa bihurtu zaigu herriko zoruak zaborrez gainezka aurkitzea egunsentietan. Jende pilaketa eta festetako "parranda" ohiturak arau guztiak alboratzea baimentzen du ilargi argitan, eta, badirudi, etengabeko gorantzarako bidean doala.
Egoera horri aurre egin beharrean aurkitzen da garbitasun brigada. Juan Mari Sánchez Asurmendi, Harkaitz Rodríguez Azpiri eta Juan Bazterretxea Osa "Txarli" dira talde horretako hiru partaide, eta euren lanen berri solastu dugu.

NOLA ZAUDETE ANTOLATUTA HERRI-GARBIKETA LANEAN?

Deba Beheko Mankomunitate enpresa publikoaren barnean, non Mutrikuko Udala ere parte den, gaude ezarrita herri-garbitasunean aritzen garen taldea. Urte guztian zehar lau langilek osatzen dugu talde hori, eta ekainaren lehenetik irailaren bukaera arte, beste langile batez indartzen da taldea, Saturraran, Mutrikuko hondartza ingurua eta Deba ibaiaren Mutriku aldearekin zabaltzen delako gure lan-esparrua. Aurtengoan, hala ere, errepideko obrak direla-eta, Ondarbeltz eremuan ez dugu egitekorik izango.

Festetan are eta lan gehiago gertatzen delarik, beste bi peoi, ur-mangera eta ura presio handiz jaurtitzen duen "botijoa" deitzen diogun makina erabiltzailea (bi kaleetan bakarrik sartu ahal dena), gehi Debatik ekartzen dugun beste makina garbitzailearekin indartu beharra izaten dugu. Hau da, beste lau langile gehiago, guztira bederatzi, herria txukuntzeko.



ORDUTEGIA ALDATZERA BEHARTUTA AL ZAUDETE FESTETAN?

Ez. Gure lan-ordua ohiko jai egunetan goizeko sei eta erdietatik hamaiketara izaten da, eta festetan ere ordutegi bera izaten dugu. Ordu horretarako kaleak txukun uzteko ahaleginak egiten saiatzen gara, baina zaila gertatzen zaigu hori, endemas, jai egun konkretu batzuk ostiral edo larunbatean gertatzen badira. Lehenago lanean hastea alperrik litzateke, kaleak jendez gainezka izaten direlako, eta ez dagoelako lana era egokian egiterik. Horregatik, herriko goialdetik, pertsona gutxien ibiltzen diren kaleetatik hasten gara, eta, beranduago beherantz jotzean, errazago mugitzen da jendea lana ondo egiten utziz. Burumendiko taberna irekita badago, jendea prozesioan joaten da bertara, eta asko errazten du gure lana joera horrek.

MARKATUTA AL DITUZUE ZUEN LAN-ILDOAK?

Gure enpresaren aginte-estrukturan enkargatua dugu gure gainetik. Hark markatzen digu funtzionatze era, udaletxea ere hor dago zehaztasunetara iritxi beharrik baldin badago. Baina urteak daramagu lan honetan, eta, agian horregatik, nahiko era autonomoan uzten digute jokatzen: guk dakigu hobeen zeintzuk diren zailtasunak izan dezakegun egun eta lekuak, eta gure erara egiten dugu lan. Pentsatzen dugu ondo ari garela, ez baitugu inoiz gure lanaren kexarik izan.

Zergatik behartzen zaituztegu lan horretara?

Jaietan herriko zenbait kale eta lekuetatik pasatzea besterik ez dago erantzuna nahi duenarentzat. Era ezberdineko zaborra izugarri pilatzen da, herriko erdigunean gehienbat, baina "botiloi" gero ugariagoak montatzen dituztenez, leku apartekо bazterretan ere ugaritzen ari da zaborra urtetik urtera.

ZEIN MOTATAKOA DA BILTZEN DUZUEN ZABOR UGARIENA?

Plastikoa eta beira dira orokorrean ugarienak. Taberna sarrerak, txosna inguruak eta barraka guneak ere ahalegin berezia eskatzen dute, zorua koipeztuta gelditzen delako, eta, ezin ahaztu, lurreko gernu arrastoak eta giroan uzten duten usain sarkorra ere konpondu beharra dagoela. Horietatik ezabatzen zailena beira da, botilak zein edalontziak lurrera jaurtitzean txikitu egiten dira, eta oso gaitza da galtzada-harri artekik ateratzea. Esan genezake, oraingo tresneria ez genuenean, malen jaietako zatitxoak kalbarioetan desagertzen zirela, eta kalbarioetakoak gabonetan. Oraingo tresneria erabilita ere, hor





gelditzen dira zenbait egunetan harri tartetan.

TRESNERIA AIPATZEN DUZUENEAN ZERTAZ ARI ZARETE?

Arestian esan bezala, bi erratz birakari eta aspiragailua duten bi makina erabiltzen ditugu zoru azaleko zaborrak biltzeko haize-makinen laguntzarekin. Ohiko erratza eta pala ere astindu beharrean gara bilketa horietan. Aipatutako beira txikiak eta antzeko zaborrak ateratzeko "botijoa" erabiltzen dugu, ur-txorru mugikorrak maneiatzen duena, eta, zenbait lekutan sartu ezin denez, eskuz maneiatutako mangera erabili beharrean aurkitzen gara.

Zoruetako koipea kentzeko ura presioan erabiltzen dugu. Ezin dugu detergenterik erabili, ez dadin estolderietan zehar itsasoratu. Kasu eta une nabarmenetan bakarrik erabiltzen dugu detergentea, kontu handiarekin. Aire-gozagarria erabiltzen dugu gernuen usaina ezabatzeko. Kamioiak ere egunero pasatzen dira edukiontziak jasotzera.

EDUKIONTZIAK AIPATU DITUZUENEZ, NOLA IKUSTEN DUZUE HAUEN ERABILERA?

Asko dago egiteko hobekuntza bidetik. Ez festetan bakarrik, urte guztian zehar ere zabor asko ikusten da edukiontzien inguruan, nahiz eta kartelak jarriak diren hori ekidin asmoarekin. Papeleretan sailkatu gabeko hondakin ugari aurkitzen ditugu, gehienetan, bi pausu gehiago ez ematearren utzitakoak. Orain hilabete pasatxo kontratatu da pertsona bat organikoen edukiontzietan jaurtitzen dena gainbegiratzeko; gantxo baten bidez aritzen da organikoak ez diren poltsak ateratzen, eta ez dira gutxi. Azaldu nahi genuke, organikoen artean kopuru ez handi batez nahasturik badaude ezorganikoak, zabor trataera hartzen duela kopuru guztiak. Nahikoa da pertsona gutxiren portaera okerrak, multzo handi baten ahaleginak ezerezean uzteko.

ZER ESKATUKO ZENIEKETE HERRITARREI, ZEIN FESTETARA ETORTZEN DIRENEI, OKERTZEN DOAN EGOERA ALDA DADIN?

Gu ez gara, agian, egokienak ezer esateko, baina bai nabaritzen ditugula gauza batzuk. Beheko plazan, adibidez, txosnek eta euren bezeroek erabaki zutenetik edariak beirazko ontzietan zerbitu ordez, bakoitzarentzako edalontzi bereziak saltzea eta horietan zerbitzea garagardo zein bestelako edariak, nabaritu dugu ia desagertu egin direla lurrean beirazko botilak eta zatikiak. Beste herri batzuetan ere ikusi dugu, zenbait tabernetan beirazko ontziak kalera ateratzea debekatzen dutenak kontrola jarriz, eta... Baina, beno, nahiz eta zenbait gauza bururatzen zaizkigun, ez da hori gure lana, eta horien ardura dutenek ezarriak dituztenez euren arauak... hor utziko dugu. Nork ez du amestu herri bat, non erratzak bihurtzen diren apaintzeko tresna.

BESTE ZERBAIT ESATEKO?

Auzo berrietako egoera aztertu beharra dagoela aipatzea besterik ez.



Ondo pasa Malenak!
APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

islada
FISIOTERAPIA
UDAN ERE FISIOTERAPIA ZERBITZUA MARTXAN
ondo pasa jaixetan eta udan !
San Agustin 10, behea · 943603655 · islada@islada.org



MUTRIKUARRAK NAGUSI GIPUZKOAN

Ostiralean Zumaian jokatu zen Gipuzkoako herriarteko txapelketako finala Mutriku eta Donostiarren artean.
Eñaut Urreisti eta Alain Basterretxeak kadete mailan 30-3 irabazi zuten.
Zuhaitz Arrillagak eta Aratz Mendizabalek 25-30 galdu jubenil mailan.
Aitor Andonegik eta Mikel Mancisidorrek 30-29 irabazi zuten nagusi mailan.
2-1 irabazi ondoren txapela Mutrikura ekarri dute Danok Bateko pilotariek.

MUTRIKUKO UDALAK URREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA

Maiatzean egindako ebalukaeta baten bitartez Mutrikuko Udalak Eusko Jaurlaritzak ematen duen Urrezko Bibakin ziurtagiria lortu du 850-900 puntuko kalifikazioa lortuta (1000tik). Erakundean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa norainokoak diren ebaluatu dira bi ardatz eta sei elementuren inguruan:
1. ardatza: Zerbitzu-hizkuntza (Erakundearen irudia eta herritarrekiko harremanak).
2. ardatza: Lan-hizkuntza (Barne-komunikazioa eta lantresnak, pertsonen kudeaketa, kanpo-harremanak eta kudeaketa-sistema.
Ebaluazioaren bitartez, onak direlako sendotu beharreko alderdiak eta egokiak ez direlako zuzendu beharrekoak zehaztu dira. Badago, hortaz, oraindik ere zer hobetua.

2019 Bikain euskararen kalitate ziurtagiria

ODOLA EMATEA, BIZIA EMATEA

Agian orain arte ez zara ausartu odola ematera. Oso erraza izateaz gain hainbat pertsonen bizian eragin handia izan dezake. Ikerkuntzan aurrerapen handiak lortu dira baina oraino ez da iritsi odola fabrikatzea.

Odolak hiru osagai ditu: globulu gorriak, plasma eta plaketak. Hauetako bakoitzak iraungitze data du: globuluak 42 egunez kontserbatzen dira, odol-plasmak urtebeteko iraupena izan dezake eta plakeket berriz 5 eguneko bizia dute.

Ondorioz esan dezakegu, norbanakoak emandako odolak hiru lagunengan izan dezakeela eragina. Ez da ez ekintza makala odola ematearena. Gutako edozein honen beharrean aurki gaitezkeelako, bi bider pentsatu gabe anima zaitez odola ematera.



ONDO PASA MALENAK!
Gorritxu autoak
Pol. ANTZOMENDI · Galdona bidea
MUTRIKU 943 60 31 86
gorritxuautoak@hotmail.com

Malenetan gure ere prentsa
hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan



MALENETAKO KARTEL LEHIAKETAREN IRABAZLEAK

Aurten, beste urteetan baino jende gutxiago aurkeztu den arren, pasa den astean Arte Eskolako kideek aukeratu zituzten kartel lehiaketako irabazleak.

Hauek izan dira irabazleak:
Sari naguasia: BARRY BURLIRE (Eva Eizagirre Urkiola)
Umeen eguneko saria: Nora Beristain Erzilbengoa

Askotan parte hartu eta gero, lehenengo aldiz irabazi du Eva Eizagirrek lehiaketa egunero ateratzen duen argazki batekin. Bestalde, Norak askontan parte hartu eta irabazi du lehiaketa, hau laugarrena izan da.



EÑAUT BARRUETABEÑAK BILDUMA BERRIA, BALEAZALEAK GOGOAN

"*Newfoundland*" izena eman dio Eñautek modaren *#080bcnfashion* pasarelan aurkeztu duen bilduma berriari. Jantzi hauen bitartez diseinatzaile mutrikuarrak euskal baleazaleak hartu ditu gogoan eta haien estetika erabili du moda-eskaintza berritzailea egiteko. Oihal tekniko malguak eta kolore beltza, zuria eta granatea dira Eñauten jantzietan nagusi. Eñauti jarraitu nahi dionak hemen du bidea: **www.enaut.co**.



ADINEKO PRESOAK ETXERA!

Euskal preso politikoen erradiografia arretaz begiratuz gero, adineko presoen egoeraren larritasunaz jabetuko gara. Estatu frantseseko zein espainoleko espetxeetan dauden 253 preso politikoetatik 41k 60 urte baino gehiago dituzte: 60 eta 65 urte artean daudenak 23 dira; 65 eta 70 urte artean 15 eta 70 urte baino gehiagokoak 3 preso dira.

Datuak argiak bezain kezkagarriak dira. Adineko preso hauetatik 12k 15-20 urte daramate kartzelan; 9 presok 20 eta 25 urte artean eta 12 presok 25 eta 30 urte arteko gatibu aldia daramate. Bizitza oso bat. Agerikoa da espetxealdi luzeen ondorioz preso hauek osasun arazoen larriagotzea jasaten dutela. 60 urte baino gehiago dituztenen artean, 7 presok gaixotasun larriak garatu dituzte, Jaiki Hadiren azkeneko datuen arabera. Batzuk zerrenda publikoan agertzen dira eta beste batzuk identitatea gordetzea nahiago izan dute. Baina konklusioa argia da: zenbat eta denbora gehiago kartzelan, orduan eta gaixotasun (fisiko zein psikiko) gehiago garatzeko arriskua dago.

Bestetik, estatu espainoleko salbuespeneko legediak zuzenean eragiten die pertsona hauei, sakabanaketa eta urruntasun politika ankerrak erakusten duen moduan. Adineko presoen espetxeratze tokia euren bizilekuetatik urrun, oso urrun dago. Euskal Herritik 625 kilometrora aurkitzen dira, bataz beste. Argazki honek argi adierazten du estatu espainolak euskal preso politikoen aurka darabilen krudelkeria. Kode penal espainiarrak 36.3 artikuluan adierazten duenez, hirurogeita hamar urtetik gorako presoek hirugarren gradura igarotzeko aukera dute, arrazoi humanitario eta duintasunagatik eta suposatzen duten arrisku ezagatik. Hirugarren gradua ezinbesteko mugarria da, lege penitentziarioan bidea eginez, baldintzapeko askatasuna erdiesteko.

Baina errealitatea bestelakoa da: 41 preso horietatik, bat hirugarren graduan dago eta hiru baino ez daude bigarren graduan, beste guztiak lehenengo graduan aurkitzen dira. Bigarren graduan dauden hiru pertsona horiei hirugarren gradura pasatzeko oztopoak baino ez zaizkie jartzen behin eta berriz. Preso hauei legea aplikatuz gero kalean egongo lirateke. **Nahikoa da mendekuaren politika aplikatzeaz! Etxean libre eta bizirik nahi ditugu!!**



AGURTZANE DELGADO IRIONDO

Adina: 60 urte, 1959an jaioa

Urteak kartzelan: 19 urte, 2000an atxilotua

Espetxea: Albolete, Granada (860 km)

MUTRIKUKO PRESOEN ALDEKO MUGIMENDUA

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!
Pol. Ind. Mijoa, P 2 - 2
Tel./Fax: 943 603 065
E-mail: arrizabsenideak@terra.es
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

MUTRIKUKO TANATORIOA
Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA
Iriagirre z/g
Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

UZTAILA ETA ABUZTUA

Garagar olatua agortze bidean

Ekaina ere joan zaigu, ekiak jo du gaina; hasiak dira egunak laburtzen, eta herriko jaiak hurbiltzen. Dena den, garagarrila igaro arren, garagardo (garagar-ardo) olderik ez da faltako, agorril edota agortze unera bitartean, hemen.

Kalaputxiko zenbaki honetan uztaila eta abuztuari buruz arituko gara; elkarren jarraian dauden 31 eguneko hilabete bakarrei buruz. Ukabilak estutu, elkarren aldamenean jarri eta erdian gelditzen diren bi hatzen hasierako tontorrek adierazten digute hori. Txikitan ikasitako trikimailu baliagarria, bai horixe! Jakingo duzu ziurrenik, baina ez badakizu, galdetu inguruan. Nagusiagoek behintzat jakingo dute. Ezkerretik hasita, tontorrak 31 eguneko hilabetea adierazten du, eta tarteko zuloak 30 egunekoa (otsaila da salbuespen bakarra, egun gutxiago baititu). Horixe da labur esanda.

Behin hori aipatuta, goazen hilabeteon esanahi eta esateko era ezberdinak ikustera.

UZTAILA

Zazpigarren hilabetea; jada uda betean sartuta. Danbor hotsak entzuten dira herrian.

Uztailari hainbat eratara deitzen zaio Euskal Herriaren luze-zabalean. Hona hemen horietako batzuk: garagarrila (B), garila (N), üztaila (Z), uzta, uztaroa…

- Uztaila: “uzta+ila” baturatik dator eta uzta biltzeko hilea esan nahi du. Uztaroak ere esanahi bera izango luke, eta “uzta+aroa” baturatik dator.
- Garagarrila: “garagar+ila” baturatik dator. Toki batzuetan ekainari ere horrela deitzen diote, baina garagarraren aroa luzatu egiten denez…
- Garila: “gari+ila” elkarketatik dator. Garia biltzeko garaia delako.

Sasoi batean Mutrikun garagarra (zereal bat da) ereiten zen, eta garai honetan batzen zuten. Hori dela eta, Bizkaian bezalaxe, hemen ere “garagarrila” izena erabiltzen zuten hilabete honi deitzeko.

ABUZTUA

“Octavio Augustus” erromatar enperadorearen izenetik datorrela diote, baina uzta esateko ere erabiltzen da zenbait tokitan “abuztu” hitza; eta beharbada, kasualitatez edo, “abuztu” hitzak bere barnean “uzta” hitza duela esatea ere ez dut uste hainbesteko astakeria izango litzatekeenik, izan ere, “uztu” eta “uzta” ez daude elkarrengandik hain urrun. Hala ere, gurean baditugu hilabete honi deitzeko beste izen batzuk ere: agorrila (Z), tilistaroa (BN), dagonila (B)…

- Agorrila: “agor(te)+ila” baturatik dator, lehorte edo agorte garaiarekin lotutako hilabete eguzkitsua delako.
- Tilistaroa: “tilista+aroa” elkarketatik dator, tilistak, dilistak edo lentejak biltzen ziren garaiarekin lotua dago. Behe Nafarroan erabilitako hitza da.
- Dagonila: “udagoien+ila” baturatik dator, eta garai honetan uda bere unerik gorenean/goienean dagoela adierazten du hilabete izen honek.

Mutrikun erabiltzen zen forma zaharra (eta baita gaur egungoa ere) “abuztua” da, nahiz eta tarteka “agostua” ere nahiko sarri entzun.

Bukatzeko, gogoratu, abuztua dela izar uxo/iheskor gehien ikusten den sasoia; oker ez banabil, hilaren 12 inguruan. Ez galdu naturak eskaintzen dizkigun une liluragarri horiek ikusteko aukera. A, eta ez ahaztu zure guraria eskatzeaz!

Eta nola ez, betiere, garagardo olatu artean ito gabe (agorril bukaera bitarte), gozatu udaz eta jaiez; hemen dira eta, alaitasunez eta musikaz blai!

Ibon Aginaga Imaz



BARE - BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
etorri gurekin Malenak giro onean pasatzera!

Gora Malen jaiak!
Camping Galdona
JATETXE ETA ERRETEGIA
Galdona Baserria
eguneko menua daukagu
Tel. 943 60 35 09 MUTRIKU

ANDER PRIETO ANDONEGI "MUTXUR"

LAGUNARTEA IZAN DA FUTBOLAREN ONENA

36 urterekin erretiratu da futboletik. San Migel futbol zelaira hurreratzen ziren zaletuek garai bateko futbolarien oroitzapena ikusten zuten Mutxurrengan. Indarra, gogoa... eta abilidadea ere falta ez. Erregionaleko Messi askoren ustez. Futbolean jokatu egiten dela omen zioen Osasunako entrenatzaile Jagoba Arrasatek, baina bi jokalarik jolastu ere egiten dutela: Messik eta Anderrek.

Noiz, non, norekin hasi futbolean...

Berez zazpi urterekin hasten bazen ere, ni sei urterekin hasi nintzen Debako hondartzan Luis Mari Arrietak antolatzen zuen plaieroetako taldean, ni baino haundiagoekin, kamiseta ere handi-handi neukala... Han hiru urte egin eta Mutriku Txikira pasatzera nindoala Errealetik deitu zidaten eta hara joan nintzen. Han hiru urte egin nituen, hamalau urtera arte.

Ordutik, kirol ibilbide luzea izan duzu futbolean...

Errealetik irtenda, Burumendin hasi nintzen kadeteetan. Donostia aldeko pare bat taldek deitu zidaten han jarraitzeko, bat Antiguoko, baina nik nahiago izan nuen Mutrikun geratu. Astean bi-hiru bider hara joan beharra gogorra egiten zitzaidan eta hemen beste modu batean nengoen neure inguruan. Burumendin urtebete eginda, Eibarko jubeniletara joan nintzen Kepa Zubiaurre eta Fran Garagarzarekin batera. Handik Mutrikura itzuli eta jubeniletan Burumendin amaituta, Elgoibarren jardun nuen ondoren haundietan, gero Mutriku... gero Aurrera... eta handik Mutrikura, etxera, azken hamaika urteetan.

Hartutako edo hartu gabeko erabakien damurik bai?

Inoiz, Errealetik irten eta beste eskaintzak izan nituenean haiek onartu ez izana damutzeko bidea eman izan dit, baina horrelakoetan berehala konturatu naiz ondo hartu nuela erabakia, asko baloratzen dudalako egin dudan ibilbidea eta izan naizen taldeetan oso bizipen onak izan ditudalako, lagun asko egiteko aukera izan dudalako.

Denbora luze honetan, zer eman dizu futbolak?

Dena. Nire bizitzako errutinan dena izan da futbola. Musikan ere ibili nintzen tronpeta jotzen, baina futbola nagusi izanda, familia-ikasketak-futbola-lagunak izan da urte luzetan nire bizitzaren ardatza. Denborapasako une guztietan ere futbola izan dut betegarri.



ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Gora Malenak!
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01



Eta zuk futbolari zer eman diozu?
Ondoan izan ditudan guztiei eskaini diedan laguntasuna. Futbolean ikasi dudana eman diot bueltan futbolari: lagunen arteko giroan laguntasunez jokatzea taldekideekin.

Zer kualidadea baloratzen duzu gehien futbolari batengan?
Nire ustez, besteenganako sakrifizioa egiteko gaitasuna izatea. Futbolaren garrantzitsuena gola dela esaten da, eta goleatzaileari begiratzen zaio, baina taldeak arrakasta izateko ezkutuko eta isilpeko lana ezinbestekoa da, beste guztiaren oinarria. Eta horretarako prest egon behar da, taldearentzat lan egiteko. Niri hori gustatzen zait gehien futbolari batengan. “Neu naiz onena” pentsatu gabe, “zuetako bat gehiago naiz” pentsatzen duenarekin geratzen naiz ni.

Eta entrenatzaile batengan?
Hogeitabi-hogeitalau laguneko talde batean batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago jokatu arren jokalari guztiak pozik eta motibatuta edukitzen asmatzea da entrenatzaile batengan gehien baloratzen dudana. Aurrean futbolariak baino, futbolean jokatzen duten pertsonak hartzen dituena lanerako. Askotan, arrakasta horrelako lagun talde bat sortuta errazago lortzen da. Ligako futbolaririk onenak izateak ez dakar beti arrakasta, eta askotan jokalari ez hain onak batzen dituen benetako talde batek arrakasta lortzen du.

Hogeita hamar urte futbolean arituta, une onak eta txarrak izango ziren…
Une onak asko izan dira, adibidez Mutriku FT Ohorezko Mailara igo ginenekoa. Orduan ere, ziurrenik ere Ligako jokalaririk onenak ez genituen, baina Juan Etxaburu entrenatzaileak talde hari bere onena ateratzen asmatu zuen. Baina une onak asko izan dira bestela ere, baita partiduak galdu ostean ere, adibidez, kantinan pintxo bat jan eta zerbeza bat edatera taldeko lagunak elkartutakoan. Une horiek oso barruan gorde ditut, hortxe ikusten delako taldearen batasuna noraino heltzen den.

Une txarrak ez zaizkit lesioetatik etorri eta hori garrantzitsua izan da nire ibilbidean, zaintiratu batzuk gora behera. Errealean ez jarraitzea ere gogorra egin zitzaidan, eta handik bueltan etorritakoan izango nuen disgustua, ez naiz ondo akordatzen, baina une txar hark gogortzeko eta futbolean gogo handiagorekin jarraitzeko ere balio izan zidan, seguru.

Hogeita hamasei urtera arte futbolean…
Egia esan, azken urteetan izan dut, bai, futbola lagatzeko asmoa, baina pretenporada hasi bakoitzean lagunak entrenatzera joaten ikustean barruko harra esnatzen zitzaidan eta berriz ere futbolera! Andrea eta umea ere kontuan hartuta, konturatu naiz futbolari ematen nion denbora haientzat ere behar nuela… baina iaz ere urtebetez luzatu nuen futboleko nire ibilbidea. Aurten, ordea, bai, aurten benetan erretiratuko naiz.

Nola ikusten duzu neskek futbolean egin duten ibilbidea?
Meritu handikotzat jotzen dut egin dutena. Orain dela hogeita hamar urtetik hona bistan da eboluzio handia eman dela futbolean, eta pozgarria da mutilekin batera neskak ere kaxetetan ikustea. Futbola gizonezkoen kirola zela pentsatzen zen, baina neskek ederki erakutsi dute futbola futbola gustatzen zaien kirolarien kirola dela, mutila izan edo neska izan. Eredu ederra izan daiteke bizitzako beste alderdi askotan erabiltzeko.

Futbola utzi eta gero… entrenatzaile?
Argi daukat kirolak nire bizitzan presente izan nahi dudala aurrera begirakoan. Futbola utziko dut, baina medira dela, bizikleta dela, korrika dela…. zerbaitetan jarraituko dut. Hemendik aurrera, baina, egiten dudan kirol hori nire bizitzarekin eta nire ingurukoekin konpartituta egingo dut. Entrenatzaile? Batek daki etorkizunak zer ekarriko duen, baina oraingoz ez, oraingoz tarte bat utzi nahi dut.

Hasten ari diren gazteentzako aholku bat…
Disfrutatzeko, entrenamendu, partidu eta une guztiak disfrutatzeko. Irabaztea garrantzitsua bada ere, lagunarteaz gozatzeko. Beti joango gara irabaztera, baina lagunen ondoan galtzen denean ere asko dago irabazita. Eta futbolaren ingurukoak ere disfrutatu: etxekoen animoak, partiduetara joateko bidaiak, partidu osteko komentarioak, denboraldi amaierako afariak… Eta ilusioa ez galtzeko inoiz, horixe delako guztiaren oinarria:gaztetako ilusioa.

Dena ere ez da futbola… eta futboletik haratago?
Futbolaren helburua gola sartzea baino garrantzitsuagoa izan behar da: taldekotasuna baloratzea, talde-lana eta talde-giroa lortzea; lagunen artean errazago eta pozago ibiltzen da, eta emaitza indibidualak ere errazago etorriko dira hortik. Futboletik haratago ere, balore horiek bizitzaren edozein alorretara eraman daitezke.

Ibilbide luze honetan norbaiti esker berezirik?
Zalantzarik gabe, etxekoei: nire ibilbidea posible izan bada, gurasoei esker izan zen hasierako urteetan, eta azken urteetan Oihanari esker. Eta Pauleri ere bai, jakina, azken bi urteetan futbolarekin partekatu behar izan duelako aita.

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268



RPS: 126/19
ALAZNE OPTIKA
Eskaintza berezia
AUDIFONOETAN

Jose Mª Altzibar etorbidea 1
Tel. 943 60 31 54 · alazne.optika@gmail.com

Jai ASKE eta PAREKIDIEN alde!

Zeu ere desiatzen Malen jaixak aiatzeko? Txosnako barra ertzak barrez lehertzeko? Beheko plazatik eguna argitzen ikusteko? Kuadrilla eguneko uniformia jazteko? Gu bai! Dana dala, gogorau ez geala bakarrak. Danok dakau Malen jaixez gozatzeko aukeria haur, gazte eta heldu. Bakoitzak hartu zeuen ardurak, etengabeko parranda katia sostengatzeko ein biharreko lanak pertsona bakar baten gain utzi gabe. Hurrengo eguneko bazkaixa ezta bakarri etxen! Kontzertuetako lehenengo filak hartu eta lotsagabe nahi ditxugu gerrixak astindu; seguru ein nahi ditxugu etxea bueltako bidiak; modu aske eta osasuntsuan ligatu nahi deu, nahi deunakin eta nahieran. Kaliak eta gabak geuriak ere badialako, libre gozatu nahi ditxugu Malenak!

APURTU KONPLIZITATIEKIN ETA ERANTZUN AUTODEFENTSA FEMINISTAKIN!

Bestalde, jakin EMAk eraso sexisten aurkako protokolua jarriko doala aurten ere martxan. Eozein eraso jasan edo ikusten bazu txosnako kidiei jakinarazi, erasotuai ez laga bakarrik eta lagundu bihar doan danian, ez epaitxu bere hitza eta erasotzailia jai gunetik kaporau.





Betiko lepotik burua!

Azken urte honetan zoritxarrez, errepresioaren joerak bere horretan jarraitzen du. Euskal Herriko seme-alaba onenak espetxeetan, erbestean edo halabeharrez izkutuan mantentzen dituen, estatuko errepresioak bere horretan dirau. Preso mantentzen dituzten bakoitzeko errepresio errealitate bat idatzi dezakegu baina gaurkoan gogorazi nahi dugu bereziki, "Txikito". Txikitok 35 urte baino gehiago daramatza kartzelan, azken 12ak Puerto III-ko isolamendu moduluan. Gogorarazi behar dugu Puerto III-ko kartzela benetako sarraski espetxea izan dela ireki zuten une beretik, eta euskal preso politikoekin esperimentatzeko erabili egin dutela hasieratik. Ezarritako erregimena soberan ezaguna da bere gogortasunagatik, 2010eko maiatzean Arkaitz Bellon Elorrioarra (gerora Puerto I-ean hilik agertu zena) jipoitu egin zuten, eta iaz Xabi Rey hil zen bertan espetxe politikak eraila, baita bi preso sozial ere.

Aprobetxatu nahi dugu tarte hau ere sakabanaketak eragindako kalte pertsonal eta material guztiak salatzeko eta elkartasuna adierazteko sakabanaketa pairatzen duten guztiei. Beti egiten dugun bezala elkartasuna agertzeaz gain, sakabanaketaren erabilera politikoa salatu nahi dugu, neurri hau ez baita soilik mendeku bat, baizik eta militante politikoen jarrera baldintzatzea bilatzen duen neurri bat, presoen senide eta lagunak arriskutan jarriz.

Zoritxarrez, kartzeletako giltzak ez daude gure esku, etsaiaren eskuetan daude. Horrek ez du esan nahi etsi behar dugunik, inolaz ere. Horrek esan nahi du estatuak behartzeko Herria ideologikoki janzteko lan ikaragarria egin behar dugula, ideologizazioa eta formazioa baitira biderik eraginkorrenak borrokalari irailtzaileontzat. Errepresaliatuen estatus politikoaren onarpenaren alde egin behar da eta ez kontrakoaren alde. Soilik Herriak onartzen baldin badu gatazka ez dela konpontzen gatazkan parte hartu duten militante politikoak aske izan gabe, soilik orduan topatu ahal izango dugu benetako irtenbide bat, eta horrek izen bat dauka: amnistia.

Giza eskubideen inguruko diskurtsoak zilegiak izan daitezke baldin eta errepresaliatuen izaera politikoa ezkutatzeko balio ez badute. Zer dela eta aplikatzen zaizkie sakabanaketa, bizi osorako espetxe zigorra, FIES, preso gaixoekiko erabiltzen duten etsaiaren zuzenbide penala eta abar luzea? Presoen izaera politikoagatik aplikatzen zaie, hain zuzen ere. Horretaz gain, errepresaliatu politikoen despolitizazioak euren kriminalizazioa erraztten du, herriaren begietara delinkuente edota kriminal bihurtzen dituelako, eta horrek estatuei erraztasunak eskaintzen dizkie euren eskubideak urratzeko orduan.

Herri gisa errepresaliatuen askatasuna lortzeko betebeharra daukagu, baldintzarik gabe eta duintasunez. Ez dugu eskubiderik bakarrik uzteko, eta horretarako bidea amnistia da. Amnistiak gatazkaren konponbidea barnebiltzen du eta horregatik soilik amnistiaren gauzatzeaz bermatuko dugu errepresaliatu politiko gehiago ez egotea. Horretan jarri behar ditugu indarrak gaurtik, irakurketa alderdikoiak alde batera utzita. Ezin dugu onartu errepresaliatuen borrokaren ondorioak haietako bakoitzaren bizkar erortzea. Errepresaliatuen borroka Herriaren ardura izan da eta euren askatasuna ere Herriaren ardura izango da.

Besarkada estu bana euskal preso eta iheslari politiko guztiei, bereziki Irantzu, Agurtzane, Orkatz eta Lexuriri Mutrikuko Amnistiaren alde eta errepresioaren aurkako mugimendutik.

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
asteazken iluntzetik igande gauera arte
943 60 34 39 · 636 386 016 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

LIÑUA (I)

HARIXA EGITXEKO BALIXO ZOAN BEDARRA

Gaur egun, erropia egitxeko, zuntz naturalak (kotoia, artillia, liñua...) eta artifizialak (poliesterra, akrilikua, tergala...) dozen arren, oso gitxi erabiltzen da liñua; sasoi baten, baiña, bera zan nagusi. Neolito garaitxik erabiltzen ei da liñua ehuna egitxeko. Mutrikun ere aspalditxik, harik eta gure birramonek liñua ereitxiari laga zixuen arte.

Gure solo eta kamiño bazterretan, bada lore urdin argixa daukan bedar luzexkara bat: *liñua*. Mutrikuko baserritxar batzuek, lehengo zaharrei entzunda nunbaitx, oraindio ere hala esaten dixue etxeko gaztienei: *"sasoi baten harixa egitxeko ibiltzen zan bedar hori..."*.

Dana dala, gaur egun herrixan ikusten degun liñu gehixena *"liñu makatza"* (Linum bienne) da. Harixa egitxeko erabiltzen zan liñua ez zan berez etortzen, haura ereiñ bihar izaten zan; eta liñu makatza baiño altuagua zan, metrobete inguru harrapatzen zoan. Ereitxen zan liñuaren zientzia-izenak argibide asko ematen diguz: *Linum usitatissimum*. "Linum" genero-izena grekeratik dator (linon), eta 'harixa' esanahixa dauka; espeziearen izenak ("usitatissimum") berriz, beste hau: 'erabilgarrixena' edo 'oso erabilgarrixa'. Euskera batuko izenek ere primeran azaltzen deue landara hori zertarako erabiltzen zan: "ehun-lihoa" edo "zuntz-lihoa".

Liñuarekin harixa egitxen ibillitxako mutrikuarrak aspaldi juan ziran gure artetik, beraz ezin izan degu jaso euren ahotik lan haren berri. Aitxona-amonen akordu illuna baiño ez zaku geratzen. Hori, eta idatzizko testigantzak. Ikusi daiguzan orduan azken horrek.

Aitxa Joxemiel Barandiaranek, 1927ko artikulu baten, hola eman zoan Mutriku eta inguruko ohitxueren berri: "*El cultivo del lino y la consiguiente industria casera del hilado, que se ha conservado hasta hace pocos años, han sido ya abandonados. La operación de hilar recibía el nombre de 'goruetan' (de 'goru'=rueca). El huso era llamado 'ardatza'* ". Eta aurrerago: "*Con este hilo casero se fabricaban hasta hace 50 años casi todas las prendas de vestir (camisas y pantalones) y de cama*".

Emakumiak eta liñua

Liñu lanak, ereitxetik hasi eta harixa egin arteraiñokuak, ixa osorik emakumien zeregiñak ziran; baitxa hari harekin ehuna osatu eta alkondara, izara, buruko zapi eta bestelakuak egitxia ere. Gaztetatik gaiñera. 1775.urtian auzi baten deklaratzera deitxu zeuen mutrikuar gazte bat: "*Cathalina de Echeverria moza soltera natural de esta villa [...] dijo que es de hedad de treze a catorce años y que su oficio es todavia ylar y aprender a hazer calzeta*".

Euskal Herri luze-zabalian, etxeko alabak 11-13 urte zakazenian gurasuek solo puxketa edo txatal bat ematen zixuen liñua erein eta ezkontzarako arriua prestatzen hasteko.

Ume-umetatik hasitxa zahartu arte liñuari lotura. Hona hemen adibide bat: 1621. urtian, Domenja de Urquiaga mutrikuarrari senarra hil egin zakon. Handik 17 egunera liñua eta artua ereitxen agertzen zaku:



"*a senbrado linaça despues de la muerte del dho Diego siendo la semilla de la que se allo en la dha casa de Doztua. Yten enpeçadas a labrar y abrir tierras pª senbrar maiz*". Alargun batentzako ezinbesteko kontuak, erropia eta jatekua.

1738.urtian Tomasa de Urruzuno andria hil zan Korostola baserrixan. Ixa bere azken egunetara arte ibilli zan goruetan: "*la dha Thomassa por su ancianidad y ages que padezia no podia travajar sino es una poca de rueca*".
Harixa egitxeko prozesua luze-luzia dan arren labur azaltzen ahaleginduko gera:

Liñazixa erein

Liñuaren hazixari erderaz "linaza" eta euskeraz "liñazixa" esaten zako (liñu+hazi). 1530.urteko dokumentu baten "lynazya" hitza agertzen da Mendaro aldian: "*la qual [heredad] esta sembrada de medya anega de trigo e medya anega de lynazya*". 1657. urtian berriro agertzen zaigu hitz hori Mutrikun: "*Yten debe una fanega de linaçia, beynte reales de plata*".

XVI. gizaldixan Portugaldik ekartzen zeuen liñazixa Mutrikura, itsasoz. Baiña XVIII. gizaldixan Espaiñia aldetik behintzat ekartzen zeuen liñazixa, arraiña erostera etorritxako mandazaiñek: "*...en fresco y escavechado, y lo conducen arrieros navarros, alabeses, aragoneses y castellanos, y algunos de ellos suelen traer a vender en la villa vino, lino, aceite, pasas, almendras, orejones, garvanzos, ajos, vinagre, cevada, trigo, aba y otras*".

Baserri askotan imiña bat (1/4 anega edo 'cuarta') liñazi ereitxen zan, 12,5 kilo inguru. Bi adibide:

Oso normala zan, seme-alabaren bat ezkontzen zanian gurasuek baserrixa ematia, donaziuan, baldintza batzuekin. 1572. urtian Catalina de Aportategui alargunak Asenço semiari eta Catalina de Burbua erreiñari donaziuan eman zixuen Aportategi baserrixa. Hona hemen baldintzetako bat: "*Yten e los dhos esposos siendo obligados de le dar a la dha Catª de Aportategui labrada adresçada y estercolada en lo perteneçido de la dha su casa y caseria de Aportategui tierra para sembrar para si una quarta de linaça en todos los dias de su bida para azer dello a su boluntad*".



Etxe-jabiek ere batzuetan errenteruek eman biharrekuen artian liñua ereitxeko solo puxketia eta simaurra sartzen zeuen: 1672.urtian Estevan de Lerchundi eta Maria de la Herreria andra-gizonek Berrosasi baserrixa "betiko" ("*perpetuamente, para siempre jamás*") eman zixuen errentan Pedro de Lexalde eta Maria de Bidaniari; urteroko errentia: 7 anega gari, 2 kapoi, 9 gaztanbera, sagarrak, intxaurrak, gaztaiñak... baitxa beste hau ere: "*haian de dar adrezada en la dha casseria tierra pª poder sembrar en ella una quarta de anega de linaza pª nos (...) e despues de nos pª nros herederos e subzesores, y el estiercol que la tal tierra tuviere necesidad nos deis dentro en la dha cassa de Berrososi y lo demas sea a cargo de nos los dhos Estevan e Maria su muger e nros herederos*".

Irailleko ilbeheran ereitxen zan liñua Mutrikun, garixa ebakitxakuan, galtzua egondako zati baten. Halaixe jaso zoan 1771. urtian Antonio Miguel de Acilona alkatiak: "*Por el menguante de septiembre se siembra el lino en algunas porciones de rastrojo de trigo, que para el efecto se dejan abonandolo con estiercol que necesita en abundancia y sin mas labor se coge por mayo siguiente*". Martixan ere ereitxen zan, eta handik bi-hiru hillera batu.

Liñua batu eta potzura

Garixa heldutakuan ebaki egitxen zan, lurrian galtzua lagata. Liñua ez, haura sustrai eta guzti ateratzen zan, eskuz. Itxura danez, sustraialdia ere probetxuzkua zan zuntza ateratzeko. Lurretik atera ahala azauak egitxen ziran. Azao harek eguzkitxan lagatzen ziran egun batzuetan, sikatzen.

Gero, *liñapotzuetan* sartzen ziran beratzeko. Aproposko potzu haretan lagatzen ziran azauak harri bana gaiñian zakela. 15 egun inguru eukitzen ziran beratzen. Azaltxua kentzia zan kontua. Mutrikun lan horren lekukotasun bat daukagu: "Liñapotzueta" toki-izena (Linapozueta, 1757; Lina Pozueta, 1775). Badirudi Mendaro aldian zauala.

Uretatik ateratakuan eguzkitxan eukitzen zitxuen, bedar gaiñian, zabal-zabal, harik eta sikatu eta bigundu arte.

Lanik gogorrenak

Hortik aurrera lanik gogorrenak zatozen: liñua liñarrixan jotzia mazuarekin, trangatzia, ezpatatzia, kardatzia... Liñuari azala kendu, bigundu eta gozatzia zan kontua.

Lan horretako asko alkarrekin egitxen zitxuen andrazkuek, baserri baten edo bestian. Neguan auzoko andrak alkartzeko aukera gitxi egoten zan eta lan gogorra izan arren gustora jarduten zeuen alkarrekin. Han ibiltzen ziran, illuntzetan, lan eta lan eta kontu-kontari. Afalostian gaiñera, askotan dantzak eta jolasak egitxen zitxuen. Harek amaitxutakuan, neska-laguntzera ere hurreratzen ziran mutillak...

Ezpatia egurrezko tresna bat zan, liñua astindu eta gozatzeko erabiltzen zana. 1775eko ilbeltzian, Mendibeltzu baserriko 29 urteko alaba Artzaiñerrekako Goixakua errotan agertzen zaku liñu-lanetan: "*estuvo por tres dias a componer linos de sus padres y familia en el molino nombrado Martinicoizena*"; "*hallandose la confesante espadando linos en el molino nombrado Martinicoiz que es en el arroio de Arzerai*n". Olatz baillarako Aritza baserrixan ere ibili ei zan liñuak ezpatatzen: "*hallandose a espadar linos en la caseria de Areizaga*".

Gorua, matazia eta harilla

Goruarekin harixa egitxen hasi aurretik liñuak txarrantxatu edo kardatu egitxen zitxuen. Orratzi fiñaren atzeko tresna horrekin harigaixak bereizten zitxuen. Goruetan egitxeko gorua eta ardatza bihar izaten ziran. Liñu-moltsua goruan jarritxa, esku bixak erabilliz egitxen zeuen harixa.

Oraindik ere, Mutrikuko baserri batzuetan, badoz gorua eta ardatza. Artilliarekin erabilli zan dira ixa oraintsura arte, galtzerdixak--eta egitxeko.

Gero, ardatzetik matazak egitxen ziran. Matazak egitxeko *matazuzkixa* izeneko tresna erabiltzen zan. Ondoren, mataza harek lixibatan zuritzen ziran, sutako hautsa erabillitxa. Amaitzeko, matazak harildu egitxen ziran eta *harillak* ('ovillos') lortzen ziran, hari-pelotak. Lan hortarako *harilkaixa* ('devanadera') erabiltzen zan.

Iturritza baserriko gauzen inbentarixo baten, beste batzuen artian, honek agertzen zakuz 1632.urtian: "*doze matasas o madejas de ylo blanco para lienzo y dos ariles del dicho hilo*".

1800. urtian, Barrenkalian bizi zan Juan Antonio de Iturriza abaria hil zan Mutrikun. Etxeko objektuen artian liñu-harixa egitxeko tresnak agertzen dira: "*Yt 2 ruecas con su lino y usos, Yt 21 madejas de hilo comun, y un poco de lino, y mas 2 ovillos de hilo*". Eta etxeko ganbaran: "*Yt una devanadera*". Abaria goruetan? Bai zera! Bi neskame zakazen Iturrizak. Beuren "erremintxak" izango ziran.

Hor amaitzen zan liñua hari bihurtzeko prozesu luzia. Gero, haril edo obillo harek ehundegira eramaten ziran bertan ehunak egitxeko.

Josu Larrañaga Arrieta

POSIBLE IZANGO AL DA MAKINEKIN EUSKARAZ MINTZATZEA?

Hala uste dute Eneko Agirre eta Jon Ander Camposek, IXA taldeko kideek.

2011an lehen aldiz makinekim mintzatzeko sistemak iragarri zituztenetik, etengabea izan da hauen sorrera eta eboluzioa. Teknologia etxe bakoitzak bere sistemak atera ditu, beren gailuetan aplikatu ahal izateko, baina guztiek ezaugarri bat bakarra dute amankomunean, ezin zaitezkela Euskaraz komunikatu.

Hau da IXA taldeak buruan duen helburuetako bat, makinekin euskaraz komunikatu ahal izatea. Siri, Google Assistant edo Amazonen Alexarekin euskaraz komunikatzeko gai izatea alegia.

Sistema hauek euskaratzeko dialogoak sortu behar dira, elkarrizketek kutsua izatea ahalik eta adibide gehien lortzeko..



BAR TXOKO MUTRIKU
943 60 40 02
Bokatak
Hanburgesak
Sandwichak
Pintxo morunoak
...eta nahi duzuna
Ondo pasa Malen jaixak!

GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Elzagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59



LAIA eta AITONA

Zorionak Laia eta aitona! Etxeko danon partez patxito handi bana!



HODEI

Zorionak Hodei! Uztailaren 11ean urteak betetzen dituzulako, ondo ondo pasa eguna. Etxeko danon partez.



IRAIDE

Zorionak Iraide!! Gure txikitinak 4 urte haundi betetzeitxulako Uztailak 2an. Ama, aita eta etxeko danon partez maitasunez betetako muxu pillo bat.



MAREN

Zorion potolo bat Mutrikutik guraso, anai eta aitona-amonen partez. Ondo pasau eta muxu handi bat.



AITOR eta NAHIA

Zorionak bikote eta dozena bat muxu etxekoen partetik. Ondo pasa!!!



XABAT

Ausarta, ausarta... beti aurrera goaz!! Zorionak txapeldun!!



ARATZ eta JANITZ

Zorionak bikote ekainaren 23an eta uztailaren 11an zuen urtebetetzea izan delako. Mila muxu etxeko denon izenean.



ENAITZ

Zorionak ekainaren 27an zure eguna izan zelako. Etxeko denon partez eta bereziki Eber, Ibai, Aner, Adei eta Danelek.



IRAIA eta UGAITZ

Hiru urte.... ZORIONAK KRACKS!!

ZORIONTZEKO

E-POSTA

kalaputxi2001@gmail.com

aldizkaria@kalaputxi.eus

WHATSAPP

635748393

ESKURA

ANSORREGI ZAPATA-DENDA

KALAPUTXI

txirritxa.com

SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!

Tel. 946 832 600

Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

ERAIKUNTZAK OLATZ S.L.

Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...

Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24

Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Argazki Zaharrak



1976ko Malen bezpera, danborrada hasi aurretik

Tente:

Gaudentzio Burgaña, JoxwAngel Ulazia, Juan Carlos Perez, Carlos Zizzo, Estanis Sarasketa *Piston*, Jose Agustin Uranga eta Jose Luis Martinez *Txotiño*.

Kukulumutxu:

..., Joxu San Martin,Juan Miguel Lizardi, Jose Luis Uranga eta Xabi Urkiza





Argazki Zaharrak



1949 Malen Txiki Eguna

Nikanor Iturrino, Sabino Andonegi, Alfonso Lekube, Gaundenzio Burgaña, Klaudio Astigarraga, Fernando Gabilondo, Bernabe Arrieta, Jontxu Astigarraga, Esteban Legarda, Agirre, Ponpeyo, …?, Eugenio Egurbide, Andres Iparragirre, Pantzeska Andonegi, Bernardin Arrizabalaga….?...

OKILA
ONDO PASATU MALENAK!
S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

oreka zentroa
Masajea eta osteopatia
Hitt entrenamendua
K-Stretch luzaketak
Posturologia
Enterenamendu planak
Oihana: 605 735 911 Jon: 696 675 665
gorputzoreka@gmail.com
Jose Maria Alzibar 12, behea - Mutriku

www.kalaputxi.eus/botikak

UZTAILA	
19tik 21era	Amaia Zalduegi
zapatu (20) goizean, Lasuen-Elezgarai	
22tik 25era	Lon Apraiz
26tik 28ra	Lasuen Elezgarai
29tik 31ra	Amaia Zalduegi
Gauetan, egunero (22:00-00:00):	
ELGOIBAR	
Gauetan, egunero (22:00-09:00):	
Mercedes **ZUMETA** San Agustin 5, EIBAR 943 82 04 98	

ABUZTUA	
1	Amaia Zalduegi
2tik 4ra	Hiart Burgoa
zapatu (3) goizean, Lon Apraiz	
5etik 8ra	Lasuen Elezgarai
9tik 11ra	Lon Apraiz
12tik 15era	Hiart Burgoa
16tik 18ra	Amaia Zalduegi
zapatu (17) goizean, Lasuen-Elezgarai	
19tik 22ra	Lon Apraiz
23tik 25era	Lasuen Elezgarai
26tik 29ra	Amaia Zalduegi
30 eta 31	Hiart Burgoa
zapatu (31) goizean, Lon Apraiz	

IRAILA	
1ean	Hiart Burgoa
2tik 5era	Lasuen Elezgarai
6tik 8ra	Lon Apraiz
9tik 12ra	Hiart Burgoa
13tik 15era	Amaia Zalduegi
zapatu (14) goizean, Lasuen-Elezgarai	
16tik 19ra	Lon Apraiz
20tik 22ra	Lasuen Elezgarai

MENDI IRTEERAK

uztailak 5, 6, 7
SIERRA CEBOLLERA (Errioxa)
irailak 8
Egino-OLANO-Otzaurte
urriak 13
MANDOEGI
azaroak 17
Elizondo-ALBA-Elizondo
abenduak 1
ARNO inguruak

Burumendi Mendi Elkartea

ODOLA EMATEA

abuztuak 2, 18:00etan anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

egitarauak eta deialdiak: **aldizkaria@kalaputxi.eus** edota **whatsappa 635748393**

#AGENDA#

MUTRIKU FUTBOL TALDEA

75. urteurrena
EGITARAUA

ekainak 28tik uztailaren 31ra
75. URTEURRENEKO ERAKUSKETA
uztailean zehar
Urteurreko bideoaren aurkezpena
Urteurreneko liburuaren aurkezpena

Abuztuak 7, eguaztena
HAUR IKUSKIZUNA
19:00 Zabiel plazan

Abuztuak 10, zapatua
KORRONTZI DANTZA TALDEA
Gure Ametsa dantza taldearekin
22:30 Goiko plazan

Abuztuak 17, zapatua
ELE LAUAXETA LORCA IKUSKIZUNA
22:30 Goiko plazan

Abuztuak 28, eguaztena
KANTU KONTARI
18:00 Zabiel plazan

Abuztuak 28, eguaztena
KUP TALDEAREN KONTZERTUA
19:00 Sta Katalina Komentuan

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

ZELAIETA JATETXEA
ondo pasa Malen jaixetan!
Umeentzako pottokak, Kapeak bazkariarekin
Tel.: 943 60 45 95 Olatz Auzoa - Mutriku

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...
KALAPUTXI
Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi2001@gmail.com

- Etxea apaintzeko proiektuak
  - Altzariak
    - Sukaldeak
      - Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

Ondo pasatu Malen jaixak!

AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

Igualatorioarekin eta Osakidetzarekin lan egiten dugu

Audioprotesista egunero dago zentroan

Audiometriak doain

Optika Vitoria

OPTIKA -- AUDIFONOAK

ONDO PASATU MALEN JAIXAK!

Iparkale 1 - Ondarroa
Tel. 946 134 138
mvitoria@cnoo.es
www.optikavitoria.com


2019
MALEN JATAK
MUTRIKU
uztailaren
21etik-25era
Mutrikuko Udala